

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

123/2024 Foru Agindua, martxoaren 12koa. Onestea Arabako mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahats mordoaren sitsari (*Lobesia botrana*) aurka egiteko estrategia garatzeko proiektuak sustatzeko laguntzaren 2024ko deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaizen mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahats mordoaren sitsari (*Lobesia botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko laguntzaren oinarri arautzaileei. Oinarri horiek maiatzaren 17ko 21/2022 eta maiatzaren 15eko 18/2023 foru dekretuen bidez aldatu ziren.

Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko gastuen aurrekontuan badago partida bat kreditu nahikoa duena mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahats mordoaren sitsari (*Lobesia botrana*) aurka egiteko estrategia Araban garatzeko proiektuak sustatzeko 2024rako laguntzarako.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta bat etorri 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako mahastietan sexu nahasketako teknikak erabiliz mahats mordoaren sitsaren (*Lobesia botrana*) aurkako estrategia garatzeko proiektuak sustatzeko laguntzen 2024ko deialdia. Deialdi hori Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 14ko 45/2021 Foru Dekretuan xedatutakoak arautuko du, xehetasun hauen arabera:

- Eskerak aurkezteko epea: 2024ko uztailaren 15etik abuztuaren 2ra bitartean, biak barne.
- Eskerak aurkezteko tokia:
 - Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
 - Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroa.
 - Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek behartuta daude telematikoki aurkeztera egoitza elektronikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/ayuda-lucha-contra-polilla-vinedo>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoen: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera profesional hori dela-eta egin behar dituzten izapide eta jarduketarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak. Azken kasu horretan, laguntza eskaera bitarteko elektronikoen bidez izapidetu ahal izango da, baimendu gisa, egoitza elektronikoen zehazten denaren arabera (<https://egoitza.araba.eus/es/sede-electronica/autorizaciones>).

– Kreditu erreserba: 29.800,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko gastu aurrekontuko 40104. G/419401/77000418 "Sitsaren Kontrol Biologikorako Laguntza Plana" partidaren kontura. Oinarri arautzaileetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten laguntza eskaerei laguntzak eman eta berehala ordainduko zaizkie laguntzak.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere.

Bigarrena. Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beraren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko organo berari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 18a

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua
AMAIA BARREDO MARTÍN

Nekazaritza zuzendaria
DAVID FERNÁNDEZ SARABIA